

Eztabaidatzeko Gida

Txanotxoren Saskia

Gaiak eta estekak jasotzen dituen gida labur honekin, eztabaida hasteko eta/edo sakontzeko azterna txiki batzuk eman nahi dira. Ipuina landuko duzuen hezitzaile eta kolektiboak askotarikoak izango zaretenez, saiatu gara gida hau diziplina askokoa zein diziplina artekoa izan dadin; hala, bada, bakoitzak bere hezkuntzako inguruneari ongien egokitzen zaizkion puntuak aukera ditzake.

Ipuina kapitulutan banatuta dago, eta bakoitzean gai orokor bat aurkezten da. Kapitulu bakoitzaren barruan, gai zehatzagoak ditugu, halakoak landuz joan gaitzen. Gai horietako bakoitzari loturik, estekaren bat sartu dugu, hezkuntzako lana osatzen guretzat lagungarria izateko, eta hainbat eztabaida sortzeko.

Garrantzikoa da kontuan izatea hau denon artean eraikitzen dugula; beraz, ipuinetik atera daitekeen beste gairen bat bururatzen baldin bazaizue, istorioa aberats dezakeen dinamika, lantegi, ideiarenekin bat... jakinarazi diezaguzue gure **blogaren** bidez, guztiekin partekatuko dugu eta.

Eskerrik Asko!!



Zentzuz kontsumitu consume **con Sentido**

Medicus Mundi Araba Mugarik Gabe Paz y Solidaridad Euskadi Setem Hego Haizea



1. kapituluua: Aran-Txano Gorritxu

Kapitulu honetan, Arantxa aurkezten zaigu, gure Txanotxo, bai eta istorioa garatzen den testuingurua ere. Kapitulutik gai batzuk atera, eta haiei buruz lan egin dezakegu:

Apirilaren 22a, Ama Lurraren eguna Euskal Herrian. Pachamama Andeetako herrirentzat, UI-umlar sahararentzat:

Blanca gure Txanotxoren amonaren urtebetetzea da, eta [Lurraren Eguna](#) ere ospatzen da Gainera, [Giza Eskubideen Eguna](#) ere badugu, abenduaren 10ean, ospakizunak partekatzen dituen beste egun bat, hala nola Terra Madre Day edo Ekolurrarena

Zer da Lurraren Eguna?

Giza Eskubideen Eguna, Terra Madre Day eta Ekolurra

Euskal pastela:

Unaik, ipuineko beste protagonista bat, [euskal pastel](#) goxo bat prestatzen du, tokikoak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak diren produktuak erabiliz. Gozoki tradizional horietako bat egitea praktikan jar dezakegu. Erabiliko ditugun janariak kontsumo arduratsuko irizpideak erabiliz erostea izan daiteke lehen urratsa.

Euskal pastel horretan letra joko-bat egiten da. Igarkizun horren ideiarekin lan egin dezakegu: Elikadura Subiranotasuna + Bidezko Merkataritza = Kontsumo Kontziente eta Arduratsua
 $ES+BM=KKA$

Txanogorritxoren bertsioak:

Ipuin hau Charles Perrault-en Txanogorritxo jatorrizko ipuinaren bertsio alternatibo bat da, baina baditugu beste txanogorritxo asko, istorioaren beste bertsio asko, bai eta emakumezko beste heroi eta ipuin-protagonista asko ere. Txanogorritxo horrek bertsio batzuetan eta besteetan dituen rolen inguruan lan egin dezakegu: : Charlets Perrault, [Txanogorritxo](#); Ana María Matute, [Txanogorritxo Manhattanen](#) , Txanotxoren saskia: baita [komikian ere!](#)

Amaren lanaldi hirukoitza:

Txanotxoren amak lanaldi hirukoitz bat eginez bizi da, eta horrek ez dio ezertarako denborarik uzten. Azter ditzakegu [genero-rolak](#), sexuaren araberako lan-banaketa, [lan-baldintzak](#), eta abar.

Janarietarako gehigarriak:

Ipuinean gehigarriak dauzkaten janarien inguruan hitz egiten zaigu. Badakigu zer diren [janari-gehigarriak](#)? Ezagutzen dugu [E622](#) gehigarria, edo [Aspartamoa](#), E951?

2. kapitulua: Kobazuloa

Kapitulu honetan, Txanotxok saltoki-gunea bisitatzea erabakitzen du, janari bila, hozkailu hutsa betetzearren, eta amonarentzako opari baten bila.

Saltoki-gunea:

Gure ipuinean, saltoki-guneari 'Kobazuloa' deitzen diogu, eta han "behar duzun guztia salduko genuke, saltzeko dugun guztia zuk behar izatea nahiago izango ez bagenu"

Egile batzuek, hala nola José Saramagok, **Kobazuloa**ren metafora erabili dute, izenburu hori duen eleberraren bidez gizartea sistema kapitalistarekin eta bizitzarekin berarekin kritikoa den ikuspegi batetik erakusteko.

Laboreak:

Txanotxo labore edo zereal bila doa supermerkatuara, eta hitz-joko bat egiten da **transgenikoekin** zereal-marka ezagunarekin, (**Trans-kellogs**). Green Peace-ren **Gida gorri eta berdea** izenekoak transgenikoen gai hori ezagutarazten digu.

Zentzuz Kontsumitun, 'Zer labore ekoizten ditugu? Zer labore jaten ditugu?' ikus-entzunezkoa ere ikus dezakegu, eta berarekin horren inguruko gogoeta egin dezakegu.

Apal-betetzaile automatata:

Txanotxok supermerkatuko produktuei buruz galdetzen dio pertsonaia horri, eta, batez ere, **gazteen lan-baldintzak** gogoetarako gaitzat hartzeko balio digu. Hala ere, hausnarketa egiteko, **emakumezko makillatzaileen** lan-baldintzak ere kontuan har ditzakegu.

Lan baldintzen gaia, halaber, Charles Chaplin-en "**Garai modernoak**" filmaren bidez landu dezakegu. Filmean, langile-klaseak **Depresio Handiaren** garaian pairatu behar izan zituen muturreko lan-baldintzak islatzen dira, industrializazioaren eta **kate-produkzioaren** eraginkortasunaren ondorioz, filmaren ikuspegiaren arabera.

Kontsumo otsoa:

Txanotxok supermerkatuan ezagutzen du Kontsumo otsoa, eta hitz-jokoa egiten du: 'Kontsumitu dezagun...'. Gure ipuinean, Kontsumo otsoaren armarik onena publizitatea da (haren atzaparrak berak baino askoz eraginkorragoa). Txanotxok bata bestearen atzetik ikusten dituen iragarkiek **publizitate sexista** dute neurri handian

Plastikozko poltsak:

Txanotxo plastikozko poltsa mordoa daramala ateratzen da supermerkatutik, haietan sartu baititu erositako gauzak. Green Peace-ren blogean plastikozko poltsen erabilerari buruzko artikulu bat dugu, haren inguruan gogoeta egiteko: "**Poltsa edo bizia**"

Hiri zaratatsua, kutsatua -versus- natura, toki irekiak:

Kobazulotik erosketa guztiekin ateratzean, Txanotxo ingurune ikaragarri baten erdian aurkitzen da: zarata, kea... Hainbat kutsadurari buruz eztabaida dezakegu, eta informazioa bildu:

Airearen kutsadura, hots-kutsadura, kutsadura elektromagnetikoa

Ingurunez aldatzeak -basoak, naturak- gure Txanotxoren gogo-aldarteak aldatzen du. Hausnarketa egin dezakegu horren gainean, galdera hau eginez: zergatik uste duzu hunkitzen dela Txanotxo?

3. kapitulua: Kooperatiba

Kapitulu honetan, Txanotxo amonaren etxera heldu da dagoeneko, eta amonaren bidez, hain zuzen, kooperatibako lana, tokiko hazien aberastasuna, baratzea, bidezko merkataritza... ezagutzen ditu, bai eta amonaren adiskide eta aliatu guztiak: elkarrekin eta Txanogorritxorekin partekatzen dituzte beren ezaguera eta jakituria guztiak.

Amonaren irakaspenak.

Ipuinean [emakumeen jakituria](#) aipatzen da (amonarena eta haren emakumezko aliatuena). "Ez da ezagun, amonak izateagatik ala nekazariak izateagatik, zergatik dakiten gehiago" dio narratzaileak. Gogoeta egin dezakegu ea nola iritsi garen, gaur egungo gizartean, ezaguera eta jakituria tradizionalak -gure amonenak, gure emakume nekazarienak- bigarren toki batean baztertzera.

Sakonago azter dezakegu [bifidusa](#), naturak berak emana, tokiko [hazien](#) erabilera, stevia landarea eta haren [iraultza gozoa](#), eta landatzera ere anima gaitzke. Ezaguera eta jakituria horiek kapituluan ageri dira, eta amonak nahiz haren aliatuek Txanotxorekin partekatzen dituzte.

Kooperatiba:

Amonak eta haren aliatuek aurkezten diguten alternatiba bat da. Badira kooperatiben hainbat adibide, hala nola [Hegoaldeko kooperatibak](#), bidezko merkataritza edo tokiko kooperatibak kudeatu eta bultzatzeko sortuak, edo guk hurbilago ditugunak, [Bidezko Bidean](#) kontsumoko kooperatiba kasu.

Alternatiba horiek zein beste batzuek "[Biziaz jabetu nahi dutenen](#)" aurka -ipuean esaten den bezala- borrokatzen laguntzen digute: [Transnazionalak](#), [hazi transgenikoak](#)

Baratzea:

Amonak eta haren aliatuek 'gure haziak gorde eta trukatu' ditugula dioskute. Horretan laguntzen diguten alternatibetako bat [autokontsumoko baratzeena](#) da. "Baratzeko", esaterako, etxerako baratze ekologikoak, hiriko baratzeak, hiri ondoko baratzeak, baratze komunitarioak, eskolako baratzeak, baratze bertikalak eta gisa horretako instalazioez interesa, jakin-mina, ikasteko/erakusteko eta gozatzeko gogoia duten guztiak elkartzeko asmoz sortutako topagune bat da.

"**Hain dut atsegin beraren zaporea nola ongi zaudetela jakitea**" dio Amonak Aminetu adiskide sahararrarekin ari denean. Beste toki batzuekin partekatzea, bidezko trukeak elkarrekin eratuz, [bidezko merkataritzara](#) garamatza. Beste alternatiba bat gehiago.

Edo **saski arduratsuak**, amonak kontsumorako erakusten digun beste alternatiba bat, [kontsumo taldeen](#) bidez.

Gizarte modernoko bizimodua -versus- bizitza ulertzeko beste modu batzuk: Galde dezakegu, zergatik pentsatzen du amarengan Txanotxok? Zergatik gogoratzen da berataz tristura apur batekin amonak eta haren aliatuek beren ezaguera guztiak irakasten dizkiotenean?. [Ongi bizitzea](#), Andeetako gizartearen [bizimodu iraunkorrerako](#) paradigma gisa, zer ikasi eman dezakeen beste alternatiba bat da.

Berrerabilitzea:

Amonak "berarentzat **moldatau** duen" soineko bat oparitzen dio. Soinekoa egiteko erabiltzen duen materialari buruzko informazioa ere landu dezakegu: **Kotoi organikoa** vs [kotoi transgenikoa](#). Edo informazio gehiago eskura dezakegu ea zer jantzi-motak erabiltzen ditugun, nondik datozen, eta praktika solidario eta bidezkoa den: "[Arropa garbia](#)" [kanpaina](#)

"Hobe iturburuaren bila abiatzea, eta ez taldeari jarraitzea":

Ipuinean erabiltzen den atsotitz horrek aukera eman dezake lan egin dezagun egiten duguna -

gizarteak eta gutako bakoitzak egiten duguna- era kritikoan zalantzan jartzen, azter dezagun nola, askotan, geure buruari besteren ildotik lerratzen uzten diogun eta azalekoari baino erreparatzen ez diogun. Esaera horrekin batera erakusten den irudiak (elkartzen diren eskuak, katalingorria batetik bestera pasatu ahal izateko) [elkarrekin, sarean, eraikitzearen](#) garrantzian ere pentsarazten digu.

4. kapitulua: Saskia

Ikasi duen guztiarekin, gure Txanotxo bere eguneroko bizimodura itzultzen da, amonak eta adiskideek eman dizkioten irakaspenak eta ezaguerak atxikita.

Orain, praktikan jarri behar ditu:

Ezaguerak eta grinak eguneroko bizitzan aplikatzea. **Ikusi eta ekin!** bideoblogean bideo, film labur eta dokumental multzo bat daukagu, mundu bidezkoago bat lortzeko hainbat **alternatiba praktikoa** eta sinbolikori buruz.

Elikadura-subiranotasuna:

Kapituluan **tokiko produktua kontsumitzea** zein garrantzitsua den azaltzen zaigu: Solanum Tuberosa, (Arabako patata), **“Amflora”** sasipatataren moduko produktu transgenikoen kontsumoaren aurka.

Transnazional batzuk gogorarazten zaizkigu (**Monsanto, Basf, Bayer**), eta kontsumo-zirkuitu laburrak proposatzen (**“Barazetik lapikora”**), elikadura subiranotasun hori garatzeko bidetzat.

Ariketa bat proposa dezakegu, “pintxo arduratsu” bat asmatzeko, **tokikoak eta ekologikoak diren produktuekin**, Unai ipuinean egiten duen **arabar pintxo** bezalakoxea.

Hausnarketa egin daiteke kontsumoko praktika batzuei buruz, eta honako hau eztabaidarako gaia izan daiteke: Pertsonak salgai gisa tratatzea vs **bidezko merkataritza**.

Azkenik, zer edo zer gehiago ikas dezakegu **Creative Commons** lizentziari buruz: **sorkuntza kolektiborako lizentzia irekia**. Beste kontsumo-mota bat, kulturaren, jakituriaren, irakaspenen eta ezagueren... kontsumoa: hura ere modu arduratsuan egin daiteke, ezagutza partekatua bidez egiten bada.

Eta hala bazan edo ez bazan, **hasi dadila ipuina...**

Batzuek dagoneko hasi dute ipuina, eta proposamen didaktiko batzuk egin dituzte. Hemen dugu oso **hezkuntza-saio** dinamiko baten adibide bat, Casas Viejaseko (Cadiz) Bigarren Hezkuntzako Institutuak proposatua. **Eta nahikoa osoa den artikulua bat**, iturri interesgarri batzuetarako estekak dituena.

Zenbait ikus-entzunezko

Polihartuak - Aldaketaren abezea. Aldaketaren abezean, honako hauek aztertzen dira era didaktikoan, ikus-entzunezko, testuzko eta antzerkizko baliabideak erabiliz: janari-politikak, kontsumoa, nekazaritza-industriaren eta abeltzaintzaren arloko ustiapena, eta herrien eta pertsonen elikadura-subiranotasunaren garrantzia, elikadura bidezkoagoa eta osasungarriagoa lortzeko alternatiba gisa.

Genetikoki eraldatutako nekazaritza-produktuak landatzea debekatzeko lege-proposamena (Vimeo). ESPAINIAKO PARLAMENTUKO OSOKO BILKURA. 2009/07/02 - OHIKO BILKURA. Parte-hartzailea: Alexis Inglada Romero. Parte hartzen duen erakundea: Plataforma Som lo que Sembrem

Dokumentala: Hiru istorio eta edalontzi bat esne. Pablo Fraguasen eta Álvaro Porroren dokumental honek ingurumen-arazoetan ohikoa den kausa batean jartzen du arreta: nekazaritzarako eta abeltzaintzarako eredia, eta elikagaien aldetik sortzen duten kontsumo-mota. Zuzen eta itzul-ingururik gabe, bideo honek ingurumenaren ikuspegi integratzaile bat aurkezten du, non gizartearen eta ingurumenaren arazoek elkar atzeraelikatzen duten.

YouTube - KONUKO elikadura-subiranotasunerako ikus-entzunezko gida Venezuelan egindako gida bat da, eta nekazaritzako praktika alternatiboak, diseinu ekologikoa, bioeraikuntza, eta abar erakusten dizkigu.

Botilako uraren historia (polemiko) bat Bideoa azaltzen du nola enpresek “**eskaria fabrikatzen**” duten, estatubatuarrek astean 500 milioi botila ur baino gehiago eros ditzaten lortzeko, iturriko ura daukaten arren. Halaber erakusten dira **botilako uraren industriak iturriko uraren aurka egiten dituen erasoak**, eta ingurumen-gaietan oinarritutako publizitatearen erabilera, sortzen duen plastikoak dakartzan birziklatze-arazoak ezkutatzearren.

Kilker amona: Ayoreo herri indigenaren mitoa, pachamamarenganako maitasunaz eta uraren beharraz, haurrentzako liburu baten moldaketa eta Boliviaren eta Danimarkaren arteko animazio-lantegi bat batu dira **Kilker amona** film laburra sortzean. Lan hori mamitzeko, zortzi boliviarr animatzaile beka eman zioten bost hilabetez marrazketa tradizionalako teknikak ikas zituzten, aldi berean *Kilker amona* filmean lan egiten zutelarik. Kultura-trukeko lan horren emaitzak ahalbidetu du zenbait gaztek prestakuntza jaso dezatela ilustrazioaren eta animazioaren arloko teknikak garatzeko. Eta gure artisten sormena erakusten digu.

YouTube - KONSTSUMO ARDURATSUA - GAZTE NAHAS-MAHASA 13 urtetik 18 urtera bitarteko gazteentzat da, eta prestakuntza zein informazioa ematen zaizkie kontsumoari buruz, sektore horretako populazioarentzat interesekotzat jo diren gaiak kontuan harturik. Hartara, kontsumitzaile kontziente, arduratsu eta solidario izateko tresna bat eskaintzen zaie. Ezin hobea neska-mutil gazteentzat!

#63 Matrizea proiektua- GEO: ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAREN URRAKETA Argentina akurizat erabiliriko lehen nazioa bihurtu zen -Engdahl-en arabera-, ausarkeriazko esperimendu batean, probatu gabe zeuden eta arriskuak izan zitezkeen elikagaiekin. Jakina, sor zitezkeen irabazi itzelen aurrean, baztertu egiten da segurtasun publikoaren eta pertsonen osasunaren inguruko edozer kezka.

Parte garelako: Food, Inc. (Dokumentala) Film deserosoa da. Galdera labainak, baina oso egokiak, egiten ditu familia askok beren mahietan egunero jartzen duten janariaren jatorriari buruz.

Segurua da hartzen dugun janaria? Zer baldintzatan hazten dira kontsumitzen ditugun animaliak? Osasungarriak dira industriaren praktikak ingurumenerako?

CEAMSE-K HIL EGITEN DU: Edango duzun ura ... (Dokumentala) *Badakigu zer kalte egin diogun ingurumenari. Gizateria egiten dugu erantzule, eta konponbideen zain gaude,... Entzuten, hitz egiten, itxaroten jarrai dezakegu, edo gure esku zer egin franko badagoela gogora dezakegu. Azkenean, 1+1 bi izango dira beti. Horregatik, hartu istant batzuk pentsatzeko nora nahi duzun etxean daukazu zarama azkenean joatea: betelan sanitario batera ala, beharbada, birziklatze-katera. Zeuk erabaki.*

[bidezko bidean » Blog Archive » EL70, Euskal Herriko taberna ekosolidarioa](#) "Bidezko bidean" alternatiba errealak eraikitzen dituen borroka batetik sortu zen, bestelako ereduak sortuz, sistema honen inposaketari gogor eginez elikadura-subiranotasunetik, transnazionalen, kontsumismoaren eta esplotazioaren aurkako boikotetik. Ekologikoa, tokikoa eta bidezkoa dena oinarri hartuz egiten dute hori.

[Deshazkudearen rapa](#) Rapa, bertsio eraikitzaile eta bortxakeriarik gabekoan, sistema eta bidegabekeriak salatzeke nahiz alternatibak eta sistema bera aldatzeko bideak adierazteko bitarteko onenetakoa da gaur egun.

"Deshazi, deshazi, planeta hiltzen ari
ahalegina merezi du, nire ustez, zure aldetik.
Posible da bizitzea mantsoago,
geratu, eta edan kafetxo bat tragoz trago (...)

Deshazi, deshazi, planeta hiltzen ari
hemengo bazterrean hazitakoa janari
marrubiak neguan? eros ezazu konfitura
produktuaren sasoia ez dela zaitetz kontura (...)

Kontsumo-talde bat antolatu,
bere ekoizpen txikian pestizidarik botatzen ez duen nekazari bat behar duzue topatu"

Error104.com-ERROREA SISTEMAN: SETEMek "ERROR104.com, errorea sisteman" kanpaina abian jarri du. Mundua aldatzera ausartzen zara?
Ekonomia- eta finantza-krisia aukera paregabea da mobiliza gaitzen eta finantza-sistemaren erreforma sakona lor dezagun, finantza etikoen erabilera orokor bihurtuta eta, horrela, mundu bidezkoagoa, iraunkorragoa eta gizatiarragoa erdietsita.

[Setemen ultimatum ebolutiboa \(bideoa\). Kontsumo arduratsuari buruzko animazio-bideo bikaina. Oso interesgarria da baliabide pedagogiko gisa.](#) *Ultimatum ebolutiboa*
[SETEM Comunitat Valenciana](#) GGKEak eginiko film labur bat da, eta zuzendaria Pablo **Llorens bi Goya sariren irabazlea da.** Film labur hau sentiberatze-proiektu baten barruan dago. SETEMek proiektu horren bidez kontsumo arduragabearen kausez eta ondorioez kontzientziatu nahi du, bai eta positiboak diren eta eskura ditugun alternatibak ezagutarazi.

[Haziaren xedea - berriei & politikei buruzko bideo bat](#)

Emakumeek elikadura-subiranotasuna bermatzen duten garrantziari buruzko erreportaje bat.